

# Lorezaintza

# Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**Lorezaintza**

# **H**IZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>**

Argitaraldia:	I.a, 2019ko abendua
Ale-kopurua:	I.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	<a href="http://www.euskadi.eus/euskalterm">www.euskadi.eus/euskalterm</a>
Azala:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	C.G. Ganboa, S.L.
ISBN:	978-84-457-3481-0
Lege gordailua:	SS 1291-2019

## HITZAURREA

**B**este edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartearen duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan [www.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlearitzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planeari jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

*Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a*

**MIREN DOBARAN URRUTIA**

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskadi.eus/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

### **Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:**

(4) Termino normalizatua/gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

### **Hiztegien erabilitako laburtzapenak:**

**eu** euskara

**es** español

**fr** français

**en** English

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus

# NORMALIZAZIOA

## BATZORDE TEKNIKOA

**Arkaitz Rezola** (Lorezaintzako irakaslea, Fraisoro Nekazaritza Eskola)

**Karla Jon Dravasa** (Erlezaina, Eltsoko Erlezaintza Museoa)

**Begoña Arrate** (UZEI)

Koordinatzailea: **Nerea Laskibar** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

## TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Miren Dobaran Urrutia**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

**Garbiñe Doval García**, IVAPEko Euskara zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

**Josune Zabala Alberdi**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Gotzon Lobera Revilla**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPEko ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Naroa Gorostiaga Barriola**, aditua

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

**Pascual Rekalde Irigoien**, aditua

## UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

**Iñigo Segurola.** “Lur paisajistik” enpresako zuzendaria

**Jakoba Errekondo.** Lorezaintzan aditua, Zerain Fundazioa

**Mendikoi Fraisoro.** Nekazaritza Eskolako irakasleak. (Arduraduna:  
Mari Jose Maiz)

## **EREMU-ZUHAITZA**



- 1 Lurra: motak eta ezaugarriak**
- 2 Lurreko lanak**
- 3 Lorezaintzako produktuak eta elementuak**
- 4 Lan egiteko tresnak**

# AURKIBIDEA



## **Bokabularioa sailka**

1. LURRA: MOTAK ETA EZAUGARRIAK . . . . 14
2. LURREKO LANAK . . . . . 21
3. LOREZAINZAKO PRODUKTUAK ETA  
ELEMENTUAK . . . . . 34
4. LAN EGITEKO TRESNAK . . . . . 51

**Euskarazko aurkibidea . . . . . 59**

**Gaztelaniazko aurkibidea . . . . . 69**

**Frantsesezko aurkibidea . . . . . 77**

**Ingelesezko aurkibidea . . . . . 85**

**Erreferentzia bibliografikoak . . . . . 93**

# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. LURRA: MOTAK ETA EZAUGARRIAK

### ainar-lur

Ik. txilar-lur

### ainube

Ik. laiotz

### I

### aireztapen (4)

Sin. aireztatze (4)

Lurrean 5 eta 15 bat zentimetro bitarteko zuloak egitea, airea, ura eta nutrienteak sartzeko eta lurra trinkotzen ez uzteko.

**es** aireación; aireado

**fr** aération

**en** aeration

### aireztatze

Ik. aireztapen

### 2

### alde (4)

Gune topografiko batek puntu kardinaletikiko eta klima-faktoreen eraginarekiko duen orientazioa. Intsolazioa, haizea, euria eta temperatura dira klima-faktoreak.

**es** exposición

**fr** exposition

**en** exposure

### 3

### alfer-lur (4)

Sin. etze (4)

Landu gabe uzten den lurra.

**es** baldío; erial

**fr** terrain en friche

**en** uncultivated land

### 4

### alkalinotasun (4)

Ingurune urtsu batek hidrogeno ioiekin erreakzionatzeko duen gaitasuna.

Azidotasunaren aurkakoa da. Lurzoru alkalinoek 7tik gorako pH-a izaten dute.

**es** alcalinidad

**fr** alcalinité

**en** alkalinity

### 5

### arroka ama (4)

**es** roca madre

**fr** roche mère

**en** parent rock; bedrock

### 6

### arroka-ile (4)

Sin. arroka-zuntz (4)

Jatorri naturaleko arroka igneoeekin eginda egon ohi den ile minerala (adibidez, basaltoarekin edo diabasarekin). Laborantza hidroponikoan erabiltzen da batez ere, sustraiak hazteko euskarri egokia baita, eta ura zein elikagaiak uniformeki banatzeko gaitasuna baitu.

**es** lana de roca

**fr** laine de roche

**en** rock wool

### arroka-zuntz

Ik. arroka-ile

### 7

### azidofilo (izond.) (4)

Lurzoru azidoan hazten dena.

**es** acidófilo

**fr** acidophile

**en** acidophilous

8

**azidotasun** (4)

Ingurune urtsu batek hidrogeno ioiak emateko duen gaitasuna.

Alkalinotasunaren aurkakoa da.

Lurzoru azidoek 7tik beherako pH-a izaten dute.

**es** acidez

**fr** acidité

**en** acidity

9

**basofilo** (izond.) (4)

Lurzoru basikoan hazten dena.

**es** basófilo

**fr** basophile

**en** basophilous

**basoko lur beltz**

Ik. basoko lurrustel

10

**basoko lurrustel** (4)

Sin. basoko lur beltz (4)

**es** mantillo de bosque

**fr** mull forestier; terreau de bois

**en** forest mull

11

**buztin hedatu** (4)

**es** arcilla expandida

**fr** argile expansée

**en** expanded clay

12

**buztin-lur** (4)

Sin. lurzoru buztintsu (4)

Buztin-eduki handiko lurzorua. Oso iragazgaitza, lanerako astuna eta aireztatzen zaila izaten da; ondorioz, erraz istiltzen da.

**es** suelo arcilloso

**fr** sol argileux

**en** clay soil

13

**egutera** (4)

Sin. leku egutera (4); eguzki-begi (4)

**es** solana; terreno soleado

**fr** terrain ensoleillé

**en** sunny area; suntrap

**eguzki-begi**

Ik. egutera

**etze**

Ik. alfer-lur

**ginarra-lur**

Ik. txilar-lur

**gisu-lur**

Ik. kare-lur

**gisu-lurzoru**

Ik. kare-lur

**harea-lur**

Ik. hondar-lur

14

**harri bolkaniko** (4)

Sin. sumendi-harri (4)

**es** piedra volcánica

**fr** pierre volcanique

**en** lava stone

15

**hondar-lur** (4)

Sin. lurzoru hondartsu (4); harea-lur (4); lur hareatsu (4)

Lurzoru solte, harro eta lehorra.

Hondarra % 60-tik gorako proportzioan izaten duenez, urari eta elikagaiei eusteko gaitasun txikia izaten du, eta, ondorioz, ura erraz drainatzen du.

**es** suelo arenoso

**fr** sol sableux

**en** sandy soil

**hostozko lur beltz**

Ik. hostozko lurrustel

16

**hostozko lurrustel (4)**

Sin. hostozko lur beltz (4)

**es** mantillo de hojas**fr** terreau de feuilles**en** leaf compost

17

**humifikazio (4)**

Gai organikoak humus bihurtzea.

**es** humificación**fr** humification**en** humification

18

**humus (4)**

Lurraren azaleko landare- eta animalia-hondakinak deskonposatu ondoren geratzen den hondakin organikoen multzoa, lurzuaren goialdean egoten dena eta kolore iluna izan ohi duena.

Mantenugai-eduki handia izan ohi duenez, preziatua izaten da lorezaintzan eta nekazaritzan.

**es** humus**fr** humus**en** humus

19

**iragazkortasun (4)**

Lurrak ura pasatzen uzteko duen propietatea, iragazketa-abiaduraren arabera neurtzen dena.

**es** permeabilidad**fr** perméabilité**en** permeability

20

**istiltzearekiko tolerantzia (4)****es** tolerancia al encharcamiento**fr** tolérance à l'engorgement**en** waterlogging tolerance**istinga**

Ik. zingira

21

**kaltzifugo (izond.) (4)**

Kaltzio-gatzen eduki txikia duten lurzorueta (lurzoru azidoetan) hazten dena.

**es** calcifugo**fr** calcifuge**en** calcifuge

22

**kaltzikola (izond.) (4)**

Kaltzio gatzen eduki handia duten lurzorueta (lurzoru alkalinoetan) hazten dena.

**es** calcícola**fr** calcicole**en** calcicolous; calcicole

23

**kare-lur (4)**

Sin. lurzoru karetsu (4); gisu-lur (3); gisu-lurzoru (3)

**es** suelo calcáreo; tierra calcárea**fr** sol calcaire**en** calcareous soil

24

**katioiak trukatzeko****gaitasun (4)**

Lurzoruak xurga ditzakeen katioi aldagarrien kantitatea.

**es** capacidad de intercambio catiónico**fr** capacité d'échange cationique**en** cation exchange capacity

25

**koko-zuntz (4)****es** fibra de coco**fr** fibre de coco**en** coco fibre

26

**laiotz (4)**

Sin. ospel (4); ainube (3)

**es** terreno sombrío**fr** terrain ombré**en** shady area; shady garden area

27

**landare-lur (4)**

Sin. lur begetal (4)

Materia organiko ugari duen lurra, lurzuaren azalean egoten dena eta kolore iluna izaten duena.

**es** tierra vegetal  
**fr** terre végétale  
**en** vegetable soil

**leku egutera**

Ik. egutera

28

**lohi (4)**

Buztinaren eta harearen arteko pikortamaina duten lurzoruko partikula mineralen multzoa. Lorezaintzan eta nekazaritzan lohitan aberatsak diren lurzoruak emankorrak dira, eta, harea ugari dutenak baino astunagoak badira ere, buztinetan aberatsak diren lurzoruak baino errazago lantzen dira.

**es** limo  
**fr** limon; boue  
**en** mud

29

**lorategi-lur (4)**

Lorategiko landare gehienak hazteko egokiak diren ezaugarriak dituen lurra.

**es** tierra de jardín  
**fr** terre à jardin  
**en** garden soil

30

**lur alkalino (4)**

Sin. lurzoru alkalino (4)

pH-a 7,0-tik gorakoa duen lurzorua.

**es** suelo alcalino  
**fr** sol alcalin  
**en** alkaline soil

31

**lur arin (4)**

Sin. lurzoru arin (4)

Kolore nabarreko lurzoru hareatsua, kohesio eskasa eta iragazkortasun handia izaten dituena. Mantenugai gutxi izaten ditu.

**es** suelo ligero  
**fr** sol léger  
**en** light soil

32

**lur astun (4)**

Sin. lurzoru astun (4); lur koska (3)

Elementu fin asko eta, batez ere, buztin-eduki handiko lurzorua. Trakzio-esfortzu handia eskatzen duenez, lantzeko zaila izaten da.

**es** suelo pesado  
**fr** sol lourd  
**en** heavy soil

33

**lur azido (4)**

Sin. lurzoru azido (4)

pH-a 7,0-tik beherakoa duen lurzorua.

**es** suelo ácido  
**fr** sol acide  
**en** acid soil

**lur begetal**

Ik. landare-lur

**lur beltz**

Ik. lurrustel

34

**lur emankor (4)**

Sin. lurzoru emankor (4)

**es** suelo fértil  
**fr** sol fertile  
**en** rich soil; fertile soil

35

**lur franko (4)**

Sin. lurzoru franko (4)

Osagai guztien arteko proportzio orekatua duen lurzorua, laborantzarako oso egokia izaten dena.

**es** suelo franco  
**fr** terre franche  
**en** medium textured land

**lur hareatsu**

Ik. hondar-lur

**lur koska**

Ik. lur astun

36

**lur neutro (4)**

Sin. lurzoru neutro (4)

7,0-ko pH-a duen lurzorua.

**es** suelo neutro  
**fr** sol neutre  
**en** neutral soil

37

**lur trinko (4)**

Sin. lurzoru trinko (4)

Buztin ugari duen pikor fineko lurzorua. Ura xurgatzen du, eta lehortzen denean pitzatu egiten da eta azal iragazgaitza sortzen zaio.

**es** suelo compacto  
**fr** sol compact  
**en** tight soil; compact soil

38

**lur-giro (4)**

Sin. lurarren trenpu (3)

Lurzoruak lanerako baldintzarik egokienetan dagoenean duen hezetasun-maila.

**es** tempero  
**fr** terre meuble; terre ameublie  
**en** soil tilth; mellowness

**lurpe**

Ik. zorupe

39

**lurra istiltze (4)**

Sin. lurzorua istiltze (4)

Lurzoruko pikorren arteko aire guztia galtzea, eta hutsuneak urez beteta geratzea.

**es** encharcamiento del suelo  
**fr** engorgement du sol  
**en** waterlogging of soil

40

**luraren drainatze-gaitasun (4)**

Sin. lurzoruaren drainatze-gaitasun (4)

**es** capacidad drenante del suelo  
**fr** capacité de drainage du sol  
**en** soil drainage capacity

41

**luraren egitura (4)**

Sin. lurzoruaren egitura (4)

**es** estructura del terreno  
**fr** structure du sol  
**en** soil structure

42

**luraren emankortasun (4)**

Sin. lurzoruaren emankortasun (4)

Lurzoruak landareen hazkundera errazteko duen gaitasuna, zenbait mantenugairen kantitateekin eta baliagarritasunarekin erlazionatua egoten dena.

**es** fertilidad del suelo  
**fr** fertilité du sol  
**en** soil fertility

43

**luraren pH (4)**

Sin. lurzoruaren pH (4)

Lurzoruaren azidotasun- edo alkalinitasun- maila, pH eskalako unitateetan Otik 14ra arteko balioa izan dezakeena.

**es** pH del suelo  
**fr** pH du sol  
**en** soil pH

44

**lurraren porositate (4)**

Sin. lurzoruaaren porositate (4)

- es** porosidad del terreno  
**fr** porosité du sol  
**en** soil porosity

45

**lurraren testura (4)**

Sin. lurzoruaaren ehundura (4)

Lurzorua osatzen duten harea-, lohi- eta buztin-partikulen arteko proportzioa.

- es** textura del suelo  
**fr** texture du sol  
**en** soil texture

**lurraren trenpu**

Ik. lur-giro

46

**lurrustel (4)**

Sin. lur beltz (4)

Lurzoruaaren gaineko geruza, deskonposatzen ari den gai organiko ugari edukitzen duena.

- es** mantillo  
**fr** terreau  
**en** vegetable mould

**lurzorua alkalino**

Ik. lur alkalino

**lurzorua arin**

Ik. lur arin

**lurzorua astun**

Ik. lur astun

**lurzorua azido**

Ik. lur azido

**lurzorua buztintsu**

Ik. buztin-lur

**lurzorua emankor**

Ik. lur emankor

**lurzorua franko**

Ik. lur franko

**lurzorua hondartsu**

Ik. hondar-lur

**lurzorua karetsu**

Ik. kare-lur

**lurzorua neutro**

Ik. lur neutro

**lurzorua trinko**

Ik. lur trinko

**lurzorua istiltze**

Ik. lurra istiltze

**lurzoruaaren drainatze-gaitasun**

Ik. lurraren drainatze-gaitasun

**lurzoruaaren egitura**

Ik. lurraren egitura

**lurzoruaaren ehundura**

Ik. lurraren testura

**lurzoruaaren emankortasun**

Ik. lurraren emankortasun

**lurzoruaaren pH**

Ik. lurraren pH

**lurzoruaaren porositate**

Ik. lurraren porositate

47

**materia organiko (4)**

- es** materia orgánica  
**fr** matière organique  
**en** organic matter

48

**orbel-lur (4)**

Materia organiko ugari duen lurra, hosto erdiustezez osatua egoten dena eta lurzorua medeatzeko edo substratu gisa erabiltzen dena.

- es** tierra de hojas  
**fr** terre de feuilles  
**en** leaf mould

**orotarako substratu**

Ik. substratu unibertsal

**ospel**

Ik. laiotz

49

**paisaia** (4)

Gizakiak eraldatua izan den eta ikuspegi estetikitik balioa duen lurralde-zatia. Flora, fauna, erliebea, ur-lasterrak, eraikinak, laborantza-sailak eta abar dira paisaia osatzen eta egituratzen duten elementuak.

**es** paisaje**fr** paysage**en** landscape

50

**substratu unibertsal** (4)

Sin. orotarako substratu (3)

**es** sustrato universal**fr** substrat universel**en** universal substrate; universal substratum**sumendi-harri**

Ik. harri bolkaniko

51

**terraza** (4)

Lur aldapatsu batean laborantzarako prestatzen den lursail horizontala.

**es** terraza**fr** terrasse**en** terrace; bench

52

**txilar-lur** (4)

Sin. ginarra-lur (3); ainar-lur (3)

Lurrustel azidoa, landare kaltzifugoak hazteko sarritan erabiltzen dena.

**es** tierra de brezo**fr** terre de bruyère**en** heath earth; heath soil**ura atxikitzekeo gaitasun**

Ik. urari eusteko gaitasun

53

**urari eusteko gaitasun** (4)

Sin. ura atxikitzekeo gaitasun (4)

**es** capacidad de retención hídrica**fr** capacité de rétention en eau**en** water-holding capacity

54

**zingira** (4)

Sin. istinga (4)

**es** área pantanosa; terreno pantanoso**fr** terrain marécageux**en** boggy ground

55

**zokor** (4)

Lur zati gogorra eta zakarra, lurra sasoi txarrean landu ondoren sortzen dena.

**es** terrón; gleba**fr** motte**en** clod

56

**zorupe** (4)

Sin. lurpe (4)

Lurraren eta arroka amaren arteko geruza. Landareen sustraiak bertara irits daitezke. Sakonera handia izan dezakeenez, hura lantzeko bertaraino irits daitezkeen nekazaritza-makinak erabili behar izaten dira zenbaitetan.

**es** subsuelo**fr** sous-sol**en** bottom soil

## 2. LURREKO LANAK

### adaburu-altxatzeko inausketa

Ik. gerri-adarren inausketa

### ahurtaraka ereite

Ik. ahurtarakako ereintza

57

### ahurtarakako ereintza (4)

Sin. ahurtaraka ereite (4); purrakako ereintza (4); purraka ereite (4)

Nekazariak, lorezainak edo ereiteko makina batek haziak ausaz botaz egiten den ereintza.

**es** siembra a voleo

**fr** semis à la volée

**en** broadcast sowing

58

### aireko belaunketa (4)

Sin. aireko probenatze (4)

Landare batetik ugalketa asexual bidez beste landare bat sortzeko haren aireko zati batean egiten den belaunketa-mota. Landareari ebaki bat egiten zaio, eta, estimulatzaile bat aplikatuz eta bilgarri iragazkor eta heze batekin bilduz, sustraiak botarazten zaizkio. Ondoren, sustraiak dituen landare-zatia landaretik moztu egiten da.

**es** acodo aéreo

**fr** marcottage aérien

**en** air layering

### aireko probenatze

Ik. aireko belaunketa

59

### aitzurtu (4)

Lurra aitzurrarekin, hondeaitzurrarekin edo antzeko beste tresna batekin 30 bat zentimetroko sakoneraraino lantzea.

Helburua lurra lantzea, aireztatzea, drainatzea edo ongarritzea izaten da.

**es** cavar

**fr** creuser

**en** dig

### alboko mentaketa

Ik. alboko txertaketa

60

### alboko txertaketa (4)

Sin. alboko mentaketa (4)

**es** injerto lateral de púa; injerto de costado

**fr** greffe de côté

**en** side graft

### aldatu

Ik. landatu

### aldaxka belarkara

Ik. aldaxka berde

61

### aldaxka berde (4)

Sin. aldaxka belarkara (4)

**es** esqueje blando; esqueje verde; esqueje herbáceo

**fr** bouture herbacée

**en** softwood cutting; summerwood cutting

### aldaxka zurtu

Ik. zurezko aldaxka

### aldaxka-landatze

Ik. aldaxkatze

62

**aldaxkatze (4)**

Sin. aldaxka-landatze (4)

Landare batetik beste landare batzuk ugalketa asexual bidez lortzeko haren aldaxkak erabiltzen dituen prozedura. Landarearen zati bati estimulatzaile bat aplikatu dakiok, eta ondoren lurra sartzen da zuzenean, sustraiak bota ditzan.

- es** esquejado; estaquillado  
**fr** bouturage  
**en** propagation by cuttings; cutting propagation

63

**aratze (4)**

- es** gradeo  
**fr** hersage  
**en** harrowing; drag-in

**arrastelu-lan**

Ik. eskuareitze

64

**aspertsiozko ureztapen (4)**

Ura aspertsore bidez euria balitz bezala botaz egiten den ureztapena.

- es** riego por aspersión  
**fr** irrigation par aspersion; arrosage par aspersion  
**en** sprinkler irrigation; spray irrigation

65

**azaleko ongarritze (4)**

- es** abonado de cobertera  
**fr** épandage en surface; fumure de couverture  
**en** top dressing

**azpiak egite**

Ik. lur-estaltze

66

**bakanketa (4)**

Sin. mehazketa (4)

Mendian tartekatutako zuhaitz-ale batzuk moztea, edo ereintza batean oso elkarren ondoan jaiotako landareen arteko tartea handitzea, landare batzuk ateraz.

- es** aclareo; aclarado; entresaca  
**fr** éclaircissage  
**en** thinning

67

**begi-txertaketa (4)**

Sin. begizko mentaketa (4)

- es** injerto de yema  
**fr** écussonnage; greffe en écusson; greffage d'yeux  
**en** chip budding

**begizko mentaketa**

Ik. begi-txertaketa

68

**belar txar (4)**

- es** mala hierba  
**fr** mauvaise herbe  
**en** weed

**belar-sastrakak garbitze**

Ik. sasi-garbitze

69

**belaunketa (4)**

Sin. probenatze (4)

Landare bat modu asexualean ugaltzeko prozedura, haren zati bati sustraiak gararaztean datzana.

- es** acodo  
**fr** marcottage  
**en** layering

70

**belauketa bakun (4)**

Sin. probenatze bakun (4)

**es** acodo sencillo**fr** marcottage par couchage simple**en** simple layering

71

**berraldatze (4)**

Landare jaioberriak sortu diren lekutik ateraz, prestatuz, banatuz eta mintegiko beste leku batera edo ontzietara

berraldatuz egiten den birlandaketa-mota.

**es** repicado**fr** repiquage**en** pricking out

72

**berrereintza (4)**

Labore edo soropil baten hutsuneak betetzeko egiten den ereintza.

**es** resiembra**fr** réensemencement**en** reseeding

73

**betelan (4)**

Lurzoru bateko kota-aldeak kendu eta lurzoria berdintzeko eragiketa. Lurra ekarriz eta lurzoria aldapa pixka batekin utziz egiten da.

**es** terraplenado**fr** remblaiement**en** filling up

74

**birlandaketa (4)**

Landare bat erroak bota dituen lekutik ateratzea eta beste leku batean landatzea.

**es** trasplante**fr** transplantation**en** transplantation

75

**edukiontzizko landaketa (4)****es** plantación en contenedor**fr** plantation en conteneur**en** container planting

76

**eraberritzeko inausketa (4)**

Zurezko landareen adar zaharrak moztuz landarea gaztetzeko eta muskil berriei indar gehiago emateko egiten den inausketa.

**es** poda de renovación; poda de rejuvenecimiento; poda de restauración**fr** taille de rajeunissement; taille de restauration; taille de régénération; taille de renouvellement**en** renewal pruning; rejuvenation pruning

77

**eraketako inausketa (4)**

Sin. formazio-inausketa (4)

Landareari nahi den egitura eta forma harrarazteko egiten zaion inausketa.

Inausketa-mota horren helburuak hauiek izan daitezke, besteak beste: landareak fruitua lehenago ematea, fruitu hobeak edo/eta fruitu gehiago lortzea, zuhaitzaren adarrak ondoren baliatuko den forma jakinarekin haztea eta landarea apaintzea.

**es** poda de formación; poda formativa**fr** taille de formation**en** formation pruning; early training**erauzketa**

Ik. landare-ateratze

78

**ereintza (4)**

Haziak ernatzea nahi den lekuan jartzea.

**es** siembra

**fr** semailles

**en** sowing

79

**ereintza-sakonera (4)**

**es** profundidad de siembra

**fr** profondeur de semis

**en** depth of sowing

80

**erro-inausketa (4)**

Sin. sustrai-inausketa (4)

**es** poda de raíz

**fr** taille des racines

**en** root pruning

81

**erro-lurrezko landaketa (4)**

Sin. sustrai-lurrezko landaketa (4)

Erro-lurra daukan landare baten landaketa.

**es** plantación en cepellón

**fr** plantation en motte

**en** ball planting

82

**errotze (4)**

Sin. sustraitze (4)

Landatutako landareak, belaundutako adarrak edo aldaxkak lurlean sustrai berriak botatzea.

**es** enraizamiento; enraizado

**fr** enracinement

**en** root development

83

**eskarifikatze (4)**

Landare-hondakinek lurraren gainean osatutako geruza lurra urratuz kentzea. Gehienetan, soropiletan egiten da.

**es** escarificado

**fr** scarifiage

**en** scarification

84

**eskuaretze (4)**

Sin. arrastelu-lan (4)

**es** rastrillado

**fr** râtelage

**en** raking

**ezkutu-txertaketa**

Ik. T-formako txertaketa

**ezpal-mentaketa**

Ik. ezpal-txertaketa

85

**ezpal-txertaketa (4)**

Sin. ezpal-mentaketa (4)

Mihi-formako ebaki baten eta goitik beherako beste ebaki baten bidez sortutako txertakaren zaurian egiten den txerto-begi baten txertaketa.

**es** injerto de astilla; injerto de chip

**fr** greffe en chip budding

**en** chip grafting

86

**fertirrigazio (4)**

Sin. ureztapen ongarridun (4)

Ongarria ureztatze urarekin batera emanez egiten den ongarritze-teknika.

**es** fertirrigación

**fr** fertigation; fertirrigation

**en** fertirrigation

**formazio-inausketa**

Ik. eraketako inausketa

87

**fruktifikazio-inausketa (4)**

**es** poda de fructificación

**fr** taille de fructification

**en** regular pruning

**gainmentaketa**

Ik. gaintxertaketa

88

**gaintxertaketa (4)**

Sin. gainmentaketa (4)

Lehendik txertatua dagoen landare baten gainean egindako bigarren txertaketa.

es sobreinjerto

fr surgreffage

en top grafting

89

**gerri-adarren inausketa (4)**

Sin. adaburu-altxatzeko inausketa (3)

Beheko adarrak moztuz zuhaitzaren adaburua pixkanaka igotzen joateko egiten den inausketa.

es refaldado; elevación de la copa; poda de refaldado

fr élagage

en crown lifting

**gurutzetara landatu**

Ik. hiruzuloka landatu

**harea-ekarpen**

Ik. hondar-ekarpen

**hesola-jartze**

Ik. zurkaitza jartze

90

**hiruzuloka landatu (4)**

Sin. gurutzetara landatu (4)

Elkarren alboko errenkadetan kokatuko diren landareak landatzeko modua, landare bakoitzaren parean ondoko errenkadako hutsunea egokitzea dakarrena.

es plantación al tresbolillo; plantación en triángulo

fr plantation en quinconce

en triangular planting

91

**hondar-ekarpen (4)**

Sin. harea-ekarpen (4)

es aporte de arena

fr apport de sable

en sand addition

92

**hondoko ongarritze (4)**

Landareak landatu aurretik lurreen sakon egiten den ongarriketa.

es abonado de fondo

fr fumure de fond

en basal dressing

93

**hosto-aldaxka (4)**

Landare batetik beste landare batzuk ugalketa asexual bidez lortzeko prozedura: landarearen hosto-zati bati estimulatzaile bat aplikatzen zaio, eta, ondoren, hosto-zati hori lurreen sartzen da.

es esqueje de hoja

fr bouture de feuille

en leaf cutting

**hosto-ongarritze**

Ik. ongarritze foliar

**hurbilduzko mentaketa**

Ik. hurbilduzko txertaketa

94

**hurbilduzko txertaketa (4)**

Sin. hurbilduzko mentaketa (4)

Txertakaren adar bati eta txertoaren adar bati zauri bana eginez eta biak elkarri lotuz egiten den txertaketa. Itsatsi ondoren, moztu egiten dira txertaketa egin den puntutik gorako txertakaren adar-zatia eta puntu horretatik beherako txerto-zatia.

es injerto de aproximación

fr greffe par approche

en approach graft

95

**ildo (4)**

Lurzoruan aitzurrarekin, goldearekin edo beste tresnaren batekin egiten den zulo luzanga.

- es** surco  
**fr** sillon  
**en** furrow

96

**ildo bidezko ureztapen (4)**

Laborantza-ilaren arteko ildoetatik ura zabalduz egiten den ureztapena.

- es** riego por surcos  
**fr** irrigation par rigoles; irrigation par sillons  
**en** furrow irrigation

97

**inausketa (4)**

Landareari egiten zaizkion mozketen multzoa. Hari forma ematea, loreak zein fruituak emanaraztea edo landarea saneatzea, gaztetzea zein apaingarriago jartzea du helburu.

- es** poda  
**fr** taille  
**en** pruning

98

**ipindoi (4)**

Sin. landare-zulo (4)

- es** hoyo de plantación; hoyo  
**fr** trou de plantation  
**en** planting hole

99

**izurri (4)**

Animalia-organismo parasitoek edo landare-harrapakariek sortutako infestazioa.

- es** plaga  
**fr** peste  
**en** pest

100

**jorraketa (4)**

Lursail batean belar txarrak kentzea.

- es** escarda  
**fr** écharonnage  
**en** thistle weeding

101

**karezko medegarri (4)**

Lur buztintsu eta azidoen pH-a igoarazteko, haien trinkotasuna murrizteko eta aire-edukia handitzeko erabiltzen den substantzia, kaltzioz edo/eta magnesioz osatua egoten dena.

- es** enmienda caliza  
**fr** amendement calcaire; amendement calcique  
**en** liming material

102

**kimatze (4)**

Sin. mozkintze (3)

Landareari kimu berriak (gehienetan, muturrekoak) moztea eta kentzea.

- es** cortar los brotes nuevos  
**fr** couper les nouvelles pousses  
**en** new shoot pruning

103

**kimuzko belaunketa (4)**

Sin. kimuzko probenatze (4)

Landare baterik beste landare batzuk ugalketa asexual bidez lortzeko prozedura, bi modutan egin daitekeena: landarea behetik moztuz eta ernetzen diren kimuak lurrez estaliz (erro berriak bota ditzaten), edo ezer moztu gabe, landareari oinetik sortzen zaizkion kimuak landare berriak lortzeko erabiliz.

- es** retoñado  
**fr** marcottage en cépée; marcottage par buttage; marcottage en butte  
**en** mound-layering; stool-layering

**kimuzko probenatzte**

Ik. kimuzko belaunketa

**konpost-egite**

Ik. konpostatze

**104****konpostatze (4)**

Sin. konpost-egite (4)

Nekazaritzako edo hirietako hondakin xehatuak mikroorganismoen eta hartzidura aerobikoaren bidez deskonposatzea. Helburua da konpostatu behar diren gaietan dauden mantenugaiak eta mineralak berreskuratzea, eta ongarri gisa erabiltzeko moduan uztea.

**es** compostaje**fr** compostage**en** composting**105****kontrol fitosanitario (4)**

Landareei kalte egiten dieten organismoak kontrolpean mantentzeko egiten diren eragiketen multzoa.

**es** control fitosanitario**fr** contrôle phytosanitaire**en** phytosanitary control; plant quarantine**koroako mentaketa**

Ik. koroako txertaketa

**106****koroako txertaketa (4)**

Sin. koroako mentaketa (4)

Txertakaren adar bat zeharka moztuz, haren azala bananduz eta txerto-zotz bati (edo gehiagori) punta atera ondoren hura (edo haiek) txertakaren azalaren eta egurraren artean sartuz egiten den txertaketa-mota.

**es** injerto de corona**fr** greffe en couronne**en** crown grafting**107****laborantza (4)**

Lurra edo landareak lantzea eta zaintzea.

**es** cultivo**fr** culture**en** cultivation; culture**108****labore (4)**

Gizakiarentzat eta abereentzat baliagarria izateagatik hazten den landare-espezia.

**es** cultivo**fr** culture**en** crop**109****landare-ateratze (4)**

Sin. erauzketa (3)

Landare sortu berriak lurretik ateratzea. Normalean mintegian egiten den lana da.

**es** arranque**fr** arrachage**en** lifting**landare-zulo**

Ik. ipindoi

**110****landareberritze (4)**

Hildako edo hondatutako landareak ordezte.

**es** reposición**fr** renouvellement des plantes**en** replacement of plants**111****landatu (4)**

Sin. aldatu (4)

**es** plantar**fr** planter**en** plant

112

**lepaketa (4)**

Zuhaitz bati, adar berriak botarazteko, adaburua moztea. Teknika hori ikazkintzan, ontzioletarako adar eratuak sortzeko edo abereei kimuak jaten emateko erabili izan da batez ere.

**es** tala de la copa; trasmocho

**fr** étêtage; écimage

**en** topping; pollarding

113

**loraketako inausketa (4)**

Landareari loreak emanarazteko egiten den inausketa-mota.

**es** poda de floración

**fr** taille de floraison

**en** flowering pruning

114

**luberritze (4)**

Alfer-lurrak labore-lur bihurtzeko lehenengo aldiz egiten den goldatze-edo lantze-lana.

**es** roturación

**fr** défrichement

**en** land clearing

115

**lur gaineko drainatze (4)**

**es** drenaje superficial; sistema de drenaje abierto

**fr** drainage superficiel

**en** surface drainage

116

**lur-ekarpen (4)**

**es** aporte de tierra

**fr** apport de terre

**en** land contribution

117

**lur-estalki (4)**

Sail landatueta eta, bereziki, landareen oinarrian jartzen den gai organikozko edo inertezko estalkia. Lurrunketaren ondorioz gertatzen den hezetasun-galera murrizten du, eguzki-erradiazioak sor ditzakeen tenperatura-aldaketak moteltzen ditu, belar gaiztoak haztea galarazten du eta lurraren bereizgarri estrukturalak mantentzen laguntzen du.

**es** capa de acolchado; acolchado

**fr** paillis

**en** mulch

118

**lur-estaltze (4)**

Sin. azpiak egite (4)

Landutako landareen oinetan lurra material babesgarri batekin estaltzea.

**es** acolchado

**fr** paillage

**en** mulching

119

**lur-iraulketa (4)**

Lursail bateko lurra sakon-sakonetik azpikoz goratzea. Azaleko landare-hondakinak, ongarririk eta gehitu nahi diren medeagarri guztiak lurperatzeko eta lurraren berezko trinkotzea epe baterako saihesteko balio du.

**es** desfonde

**fr** défoncement

**en** ripping up

**lurpe-lanketa**

Ik. zorupe-lanketa

**lurpeko drainatze**

Ik. zorupeko drainatze

**lurpeko ureztapen**

Ik. zorupeko ureztapen

120

**lurra berdintze (4)**

Lurraren azaleko gorabeherak deseginez hura lautzea. Lur-mugimendu handienak egin ondoren azken lanak eskuare bidez egiten dira. Lursail handietan laser bidezko lanabesak ere erabil daitezke.

- es** nivelación del terreno  
**fr** nivellement du terrain; nivelage du terrain  
**en** ground grading

121

**lurra harrotu (4)**

Lurra harro-harro uzteko mugitu.

- es** mullir la tierra  
**fr** ameublir la terre  
**en** loosen soil

**lurra prestatze**

Ik. lurraren prestatketa

122

**lurraren prestatketa (4)**

Sin. lurra prestatze (4)

Lurra landaketarako prest uztea.

- es** preparación del terreno  
**fr** préparation du terrain  
**en** soil preparation

123

**lursaila garbitze (4)**

Lursail bat prestatzeko edo lorategia ezartzeko lanetan hasi aurretik kendu behar diren harriak, motzondo ihartuak eta bestelako zabor eta oztopo guztiak lursailetik ezabatzea.

- es** limpieza del terreno  
**fr** nettoyage du terrain  
**en** clearing of site

124

**medeagarri organiko (4)**

Landareen edo/eta animalien hondakin organikoak hartzituz ekoizten den produktua, materia organikoaren eduki txikia duten lurzoruen ezaugarri fisikoak eta jarduera biologikoa hobetzeko erabiltzen dena.

- es** enmienda orgánica  
**fr** amendement organique  
**en** organic soil conditioner

**mehazketa**

Ik. bakanketa

**mentagai**

Ik. txertaka

**mentaketa**

Ik. txertaketa

**mentaketa ingeles**

Ik. txertaketa ingeles

**mentu-oin**

Ik. txertaka

**mentu-zotz**

Ik. txerto-zotz

**mozkintze**

Ik. kimatze

125

**ondoztatze (4)**

Landareen zurtoinaren edo zuhaitzen enberraren inguruan lurra biltzea eta pilatzea. Landareari eusteko zein sustraiak sendotzeko balio du, eta baita argia kentzeko eta landarea zuritzeko ere.

- es** recalce; aporcado  
**fr** buttage  
**en** ridging

**ongarriketa**

Ik. ongarritze

126

**ongarritze (4)**

Sin. ongarriketa (4)

**es** fertilización; abonado**fr** fumure**en** fertilizing

127

**ongarritze foliar (4)**

Sin. hosto-ongarritze (4)

Ongarria uretan disolbatuz eta hostoen gainean zipriztinduz egiten den ongarriketa.

**es** abonado foliar**fr** fumure foliaire**en** foliar manuring

128

**paisaia leheneratze (4)****es** restauración del paisaje**fr** restauration du paysage**en** landscape restoration**probenatze**

Ik. belaunketa

**probenatze anizkun**

Ik. serpentina-belaunketa

**probenatze bakun**

Ik. belaunketa bakun

**purrraka ereite**

Ik. ahurtarakako ereintza

**purrrakako ereintza**

Ik. ahurtarakako ereintza

129

**sasi-garbitze (4)**

Sin. belar-sastrakak garbitze (4)

**es** desbroce del terreno**fr** débroussaillage du terrain**en** bush clearing

130

**serpentina-belaunketa (4)**

Sin. probenatze anizkun (4)

Landare batetik ugalketa asexual bidez beste landare batzuk lortzeko erabiltzen den belaunketa-mota, kimu gazte bat serpentina baten gisara lurperatuz egiten dena. Kimuari ebakiak egiten zaizkio begien artean; ondoren, serpentina-forma emanez zauriak lurrean sartzen dira, eta begiak kanpoan uzten dira, airearekin kontaktuan. Horrela, zaurietatik sustrai berriak eta begietatik kimu berriak sortzen dira, eta haiek landaretxo berriak lortzeko erabiltzen dira.

**es** acodo serpentina; acodo múltiple**fr** marcottage en serpenteau**en** serpentine-layering**sustrai-inausketa**

Ik. erro-inausketa

**sustrai-lurrezko landaketa**

Ik. erro-lurrezko landaketa

**sustraitze**

Ik. errotze

131

**T-formako txertaketa (4)**

Sin. ezkutu-txertaketa (4)

T-formako ebaki bat eginez txertakan sortutako zaurian egiten den txerto-begi baten txertaketa.

**es** injerto de yema en T; injerto de escudete**fr** greffe en écusson**en** T budding; shield-grafting; shield-budding

132

**tantakako ureztapen** (4)

Hodi zulodunak erabiltzen dituen ureztatze-sistema, ura lurraren azalean oso presio txikiarekin botatzen duena.

- es** riego por goteo  
**fr** arrosage goutte à goutte;  
 irrigation goutte à goutte  
**en** drip irrigation; trickle irrigation

133

**tratamendu fitosanitario** (4)

- es** tratamiento fitosanitario  
**fr** traitement phytosanitaire  
**en** phytosanitary treatment

**txapa-mentaketa**

Ik. txapa-txertaketa

134

**txapa-txertaketa** (4)

Sin. txapa-mentaketa (4)  
 Txapa-formako txerto bat txertakaren azalean egindako lauki-formako hutsune batean txertatzea.

- es** injerto de chapa  
**fr** greffe en placage  
**en** plate grafting

135

**txertaka** (4)

Sin. mentagai (4); txerto-oin (3); mentu-oin (3)  
 Txertoa hartu duen edo hartu behar duen landarea.

- es** patrón; portainjerto  
**fr** porte-greffe  
**en** root stock

136

**txertaketa** (4)

Sin. mentaketa (4)  
 Lorezaintzan landareak asexualki ugaltzeko erabiltzen den metodoa, ugaltze nahi den landarearen ehun-zati bat (txertoa, gutxienez begi bat izan behar duena) landare sustraidun baten (txertakaren) kimuan ezartzean datzana. Biek bat egiten dute, eta elkarrekin hazten dira aurrerentzean.

- es** injerto  
**fr** greffe  
**en** grafting

137

**txertaketa ingeles** (4)

Sin. mentaketa ingeles (4)  
 Txertaka eta txertoa alakatu ondoren biei mihi bana sortuz eta bi adarrak puzzle baten moduan elkarrekin lotuz egiten den txertaketa.

- es** injerto inglés  
**fr** greffe à l'anglaise  
**en** whip grafting

**txerto-oin**

Ik. txertaka

138

**txerto-zotz** (4)

Sin. mentu-zotz (4)  
 Txertaka baten gainean txertatuko den beste landare baten kimu-zatia, begi bat edo gehiago izan ditzakeena.

- es** púa de injerto; estaquilla de injerto  
**fr** greffon  
**en** scion; graft

**txirula-mentaketa**

Ik. txirula-txertaketa

139

**txirula-txertaketa** (4)

Sin. txirula-mentaketa (4)

Txertakaren adar-bira guztian azala kenduz eta horrela sortutako hutsunean zabalera bereko txerto bat ezarri egiten den txertaketa.

**es** injerto de canutillo; injerto de flauta

**fr** greffe en flûte

**en** annular graft

140

**udako kimaketa** (4)

Landarearen hazkunde begetatiboaren garaian (hau da, landarea hostotan dagoenean) egiten den inausketa-mota. Beste adarrei edo fruituei hobeto garatzeko laguntzeko egiten da. Adarren muturreko begia kenduz egin daiteke, edo adar xurgatzaileak kenduz, besteak beste.

**es** poda en verde

**fr** taille en vert

**en** summer pruning

141

**uholde bidezko ureztapen** (4)

Laborantza-ilaren arteko erretanak edo sail guztia urez estaliz egiten den ureztapena.

**es** riego por inundación; riego a manta

**fr** irrigation par inondation

**en** wild flooding

**ureztapen ongarridun**

Ik. fertirrigazio

142

**zanga** (4)

Lurzoruan egiten den ebaki-moduko indusketa luze eta estua, urak eramateko, ureztatze- zein drainatze-sistemen hodiak lurperatzeko, zimenduak egiteko, ereintzak babesteko eta abarrerako izaten dena.

**es** zanja

**fr** tranchée

**en** trench

143

**zorupe-lanketa** (4)

Sin. lurpe-lanketa (4)

Sakoneran profil homogeenorik ez duten eta, beraz, sakoneko geruzak kanpora atera gabe utzi nahi diren lurzorueta erabiltzen den sakoneko lur-lanketa. Lurzorua irauli gabe harrotzeko, zartzatzeko eta mugitzeko balio du.

**es** subsolado

**fr** sous-solage

**en** subsoiling

144

**zorupeko drainatze** (4)

Sin. lurpeko drainatze (4)

Landareen sustraien inguruko lurra sobera dagoen ura kentzea; lurpean elkarri lotuak dauden lerro-formako zuloen edo hodian bidez egiten da.

**es** drenaje subterráneo

**fr** drainage souterrain

**en** underground drainage

145

**zorupeko ureztapen** (4)

Sin. lurpeko ureztapen (4)

Lurpean landareen erroen sakoneran ezarritako hodian bidez egiten den ureztapena.

**es** riego subterráneo

**fr** irrigation souterraine

**en** subirrigation

**zotz-mentaketa**

Ik. zotz-txertaketa

**146****zotz-txertaketa (4)**

Sin. zotz-mentaketa (4)

Txertakaren adarra edo txerto-zotza moztuz, erditik luzetara ebakiz eta txerto-zotzari punta atera ondoren txertakarekin lotuz egiten den txertaketa-mota.

- es** injerto de hendidura  
**fr** greffage en fente; greffe en fente  
**en** cleft grafting

**zubi-mentaketa**

Ik. zubi-txertaketa

**147****zubi-txertaketa (4)**

Sin. zubi-mentaketa (4)

Landare baten enbor zauritua berreskuratzeko egiten den txertaketa-mota. Zauriaren gainean eta azpian ebaki batzuk eginez eta bertan landare beretik hartutako adar bat txertatuz egiten da.

- es** injerto puente  
**fr** greffe en pont  
**en** bridge graft

**148****zurezko aldaxka (4)**

Sin. aldaxka zurtu (4)

Landare batetik ugalketa asexual bidez beste landare bat sortzeko hartatik moztzen den adar-zati gogortua. Estimulatzaile bat aplikatu dazioke, eta lurreen sartzen da, bertatik landare berri bat haz dadin.

- es** esqueje leñoso; esqueje de madera  
**fr** bouture ligneuse  
**en** ripe cutting

**149****zurkaitza jartze (4)**

Sin. zurkaizte (4); hesola-jartze (3)

- es** entutorado; estacado  
**fr** tuteurage  
**en** propping

**zurkaizte**

Ik. zurkaitza jartze

**150****zuzeneko ereintza (4)**

Aurrez lurra landu gabe egiten den ereintza. Hezetasun eskasa eta lurzorua higitzeko arriskua dituzten lurretan egitea aholkatzen da.

- es** siembra directa  
**fr** ensemencement direct; semis direct  
**en** direct seeding; direct sowing; sowing in situ

### 3. LOREZAINITZAKO PRODUKTUAK ETA ELEMENTUAK

151

**adar xurgatzaile (4)**

Ezohiko hazkundera duen adarra, begi guztiak begetatiboak dituena.

<b>es</b>	chupón
<b>fr</b>	gourmand
<b>en</b>	sucker

152

**aihen (4)**

Landare igokarien urteko adar berri malgua, beste landare baten gainean edo hazkundera gidatzeko jarri zaion arban zehar biraka hazten dena.

Landare batzuek hazteko eta hedatzeko duten kimu nagusia izaten da.

<b>es</b>	tallo trepador
<b>fr</b>	tige grimpante
<b>en</b>	climbing stem

153

**aldaxka (4)**

Landare bati moztutako adar-, hosto-edo sustrai-zatia, landare berri bat sortzeko lurrean sartzen dena.

<b>es</b>	esqueje
<b>fr</b>	bouture
<b>en</b>	cutting

**altsuma**

Ik. kimu

**arba**

Ik. zurkaitz

**arbola-landare**

Ik. zuhaitz-landare

154

**arrokaia (4)**

Harrizko egiturak eta naturako bestelako elementuak imitatzen dituen dekorazio-elementua.

<b>es</b>	rocalla
<b>fr</b>	rocaille
<b>en</b>	rocaille

155

**arrokaia-lorategi (4)**

Landareak legar eta harri artean kokatuz eratzen den lorategia. Landareak mendian berez haziko lirakeen bezala jartzeko dira.

<b>es</b>	jardín de rocalla
<b>fr</b>	jardin de rocaille
<b>en</b>	rocaille garden

**arte topiario**

Ik. topiaria

156

**barruko landare (4)**

<b>es</b>	planta de interior
<b>fr</b>	plante d'intérieur
<b>en</b>	indoor plant

157

**barruko lorategi (4)**

Sin. barruko lore-baratze (4)

<b>es</b>	jardín interior; jardín de interior
<b>fr</b>	jardin fleuri intérieur
<b>en</b>	indoor flower garden

**barruko lore-baratze**

Ik. barruko lorategi

158

**begi (4)**

Kimu-hasikina, normalean adar-puntan edo hosto-galtzarbean egoten dena.

<b>es</b>	yema
<b>fr</b>	bourgeon
<b>en</b>	bud

159

**begi begetatibo (4)**

Hosto zein kimu berriak emango dituen landare-begia.

<b>es</b>	yema vegetativa
<b>fr</b>	bourgeon végétatif
<b>en</b>	vegetative bud

160

**begi misto (4)**

Hostoak zein loreak emango dituen landare-begia.

<b>es</b>	yema mixta
<b>fr</b>	bourgeon mixte
<b>en</b>	mixed bud

161

**belarki (4)**

Sin. landare belarkara (4)

<b>es</b>	planta herbácea
<b>fr</b>	plante herbacée
<b>en</b>	herbaceous plant

162

**biurteko landare (4)**

<b>es</b>	planta bianual
<b>fr</b>	plante biannuelle
<b>en</b>	biannual plant

163

**burdin hesi (4)**

Ate, leiho edo, bereziki, hesi gisa jartzen den burdinazko itxitura.

<b>es</b>	verja
<b>fr</b>	grille
<b>en</b>	railing

164

**edukiontzi (4)**

Landareak eramateko erabiltzen den ontzi garraigarria.

<b>es</b>	contenedor
<b>fr</b>	conteneur
<b>en</b>	container

**ehun geotestil**

Ik. geotestil

**eite fastigiatu**

Ik. zutabe-eite

165

**eite koniko (4)**

<b>es</b>	porte cónico
<b>fr</b>	port conique
<b>en</b>	conical habit

166

**eite negarti (4)**

<b>es</b>	porte llorón
<b>fr</b>	port pleureur
<b>en</b>	weeping shape

167

**eite zabaldu (4)**

<b>es</b>	porte extendido
<b>fr</b>	port étalé
<b>en</b>	horizontal branching habit

**eragin moteleko ongailu**

Ik. eragin moteleko ongarrri

168

**eragin moteleko ongarrri (4)**

Sin. eragin moteleko ongailu (4)

<b>es</b>	abono de liberación lenta
<b>fr</b>	engrais à action lente
<b>en</b>	slow-acting fertilizer

169

**erraboil (4)**

Zenbait landarek lurpean izaten duten zurtoin eraldatu mamitsua, erreserbafuntzioa betetzen duena eta barnean begi bat izaten duena.

**es** bulbo  
**fr** bulbe  
**en** bulb

**erro-lur**

Ik. sustrai-lur

170

**erro-lurdun landare (4)**

Sin. sustrai-lurdun landare (4)

Erro-lurrarekin batera mintegitik ateratzen den landarea, sustrai ugari izaten dituen berriz landatzen denean ondo errotuko dela bermatzen duena.

**es** planta con cepellón  
**fr** plante en motte  
**en** balled plant

171

**ertz-muga (4)**

